

herrera

# Herrera Kirol Elkarteak, mende erdia izerditan

**h**errera Kirol Elkarteak 50 urte beteko ditu aurtun. Urrezko ospakizunak urria, azaroa eta abendua bitartean egingo dira, baina antolaketa lanak dagoeneko hasiak dira; horretarako astelehenero bilkura izaten da elkartearen bertan.

Oraingoz aurre-egitaraua prest daukate. Ekainaren 20an, Herrerako jaiekin batera, egitaraua ezagutaraziko da afari batean. Ekainaren 22an bertan, Joakin Intxausti «Pipas» krosa jokatu da. Irailean, futbol txapelketa izango da, Gipuzkoako selekzioa, herrera K.E. eta Altzako txapelketako irabazleen parte hartzearekin.

## Udazkena bete-bete

Urriaren 19an bolo txapelketa berezia antolatu da, eta hurrengo hilabetearen, azaroaren 14an mus txapelketa eta afaria. Azaroaren 22an meza berezia eskainiko zaie hildako guztiei eta 23an atletismo federazioak kros egutegian onartutako krosa izango da, bertara munduko izarrak gonbidatuko direla.

Egutegi honetaz gain, kontzertu edo argazki zaharren erakusketak ere antolatu nahi lirateke.

Herrera Kirol Elkarteak 1947. urteko azaroak 14an jarri zuten martxan Herrerako

Elkarteak 1947.  
urteko azaroan  
sortu zen



Datozen hilabeteetarako egitarau oparoa prestatzen ari dira elkarteak.

garaiko gazteek. Hain zuzen kirolaren inguruan tajuz jarduteko asmotan hasi ziren, eta gaur egun ere helburu

berekin jarraitzen dute. Egundik honetara 50 korrikalarik fitxa egin dute eta futbol, pilota, bolo, eskubaloia eta

txirrindularitza taldeak ere martxan dituzte.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

## altza

# Aspertzeko aitzakiarik ez

**a**ltzako udal topaleku eta kultur etxeetan ekintza ugari antolatu da apirilera. Denetarik izango dugu, tortila txapelketatik hasi eta musika kontzertuetaraino,

Casaresen izango diren «Pakearen aldeko IV. ihardunaldiak» ahaztu gabe.

Esan dezagun, azkenik, Altzako REM institutuko gazteek, Ignacio García May-

ren «Operación ópera» antzeztuko dutela apirilaren 17an. Ez dira, baina, auzoan arituko, Antiguako Lugaritz kultur etxean baizik. 10.30etatik aurrera jardungo dute.

## Gazteeentzako ekintzak

**Hilak 11:** Laudano, Asalto eta Estado Inperfecto taldeen kontzertua. Altzako frontoian, 22.00etan.

**Hilak 12:** Patata tortila txapelketa. Gaztelekuan, 11.00etan.

## Pakearen Aldeko IV. Ihardunaldiak

**Hilak 14:** Euskal Herriko gatazkaz solasaldia. Kultur etxean, 19.30etan.

**Hilak 15:** Mariano Ferrer kazetariaren hitzaldia. Kultur etxean, 19.30etan.

**Hilak 17:** «Sin verdad y sin justicia. ¿es posible la paz?». Kultur etxean, 19.30etan.

**Hilak 18:** Kristau jokaerei buruzko hitzaldia. Kultur etxean, 19.30etan.